

## DROGAZALETASUNA:

# ERANTZUN HASERRETUA

"Iceberg" delako itotz-mendiaren gain partea, ikusten den zatitxo delako drogazaletasuna idatzi genduen. Beraz, gure ustez, honen kontra zuzen zuzenean, besterik gabe, joatea Kijoteren haizeko erroten borroka iruditzen zaigu.

Drogazaletasuna beste puntatik ikustea ere berdin iruditzen zaigu. Ez dugu uste (Teodoro Roszak-ek aditza ematen duen pentsararen kontra) "kontra-kultura" delako horren muina eta motorra droga denik. Ez ote areago adierazpen eta alderdi bat?

Problematika hau bere osotasun guztian hartu behar, ongi konprenitu nahi bada. Ez atalka. Osotasunaren testuinguruan argi liteke soilik droga-hautzi hau.

Bestalde, funtsa joan behar da. Horregatik uste dugu inportanteagoa dela fenomenu hau nola gertatzen den baino zergatik gertatu ohi den aztertzea.

### ALKOOLA: "AITAREN DROGA"

Drogazaleak ez omen du alkoolik edaten.

Zertarako edan? Hori aitaren munduan sartzea litzake, erantzungo dizue.

Aitaren mundua esatean, gure gaurko zibilizazio hau aipatzen da.

Hitz-joku hutsa dela pentsatuko du irakurlearen batek. Hala balitz, drogazale baten aurrean eta alkooliko baten aurrean erantzun berea edukiko genduke. Eta ez dugu. Drogazaleak bedurtu, ikaratu egiten gaitu. Alkoolikoak ez. Drogazalea madarikatu egin ohi dugu. Alkoolikoarentzat gupida dugu.

Alkoolaren eta drogaren arteko diferentzia honen kontzientzia argia du drogazaleak. Izan ere, alkoola gure kulturaren sartua dugu; ardoaren, negozio legetu bat da. Ez dago hor arriskurik; arriskua gehiegikeriatatik dator, beraz aski da neurriak gordetzea.

Domenach-ek dionez, alkoolak ez du gure kultura hauzitan jartzen. Drogak, ordea, bai. Droga, bigarren Atila, gure lurra hondatu eta erraustera dator. Droga ez da gutarra, kanpotiarra da, beste nonbaiten jaioa. Droga, beste mundu baten, beste kultura baten, beste zibilizazio baten artean da. Eta orain arte hau bizi izan da. Baina hara, orain, gutartean. Gurutzada berri baten bezala, Mendebal guztia prestu dago, gerrarako prest.

Nondik dator bada droga etsai amorratu eta bel-durgarri hori?

Nondik? Etsai eta Salbatzaile guziak bezala:

### EGUZKIALDETIK: ZIBILIZAZIOA SALATZEN

Drogazaletasun arrazoinatuaz, politizatuaz ari gara. Drogazaletasunaren problema aztertzen bere hie eta nunc (hots, noiz eta nun gertatzen den), ahaztuzterik ez dago. Izan ere, hemeretzigarren mendean drogatzeak eta gaur egiteak ez du esanahi berdinik. Errusian drogatzeak eta Ipar Ameriketan drogatzeak ez. Guk gaur bizi dugun drogatzeak modu eta moda hau Estadu Batuetan giroturkioa da.

Zibilizazio krisian gaudela aitortzen badugu, hitz biribilegiak darabilzkgigula-ta baten batek, errukiz beterik, irripar egiten digu. Baina nahi nuke jakin holakoak zer erantzun behar dion Oliveinstein jaun psikiatari, horregatik ez bada zergatik gertatzen diren 50.000 suizidio-saiaketa gazteen artean galdetzen duenean.

Gure zibilizazio honetan bada halako egonezin bat. Droga, egonezin horretantxe hezurramitzen da. Eta drogak asaldura horixe aldarrikatzen du, gure zorientasuna arbulatuz eta gure balio guztiak itzulipurdikatuz.

Psikiatrentzat garbi dago: drogatzen den gazteak bere etorkizuna ukatu egin nahi du, eho, asesinatu. Guk, zibilizazio honetako "zorionsuok" ez dugu konprenitzen ahal. Baina, zibilizaziari buruzko nazka hori, higuin hori, bigarren naturalez da drogazalearentzat.

Gure balioak oro hankazgora jartzen ditu drogazaleak: gure zientzia-aurrerapena, gure mekanizazioa gure teknika-harria, gure PROGRESOA! "Contre tout" elkartasunean bizi den Jean Paul drogazaleak ongi dio: "Dena dela, drogak ez du alkoolak, telebistak eta diru-nahikundeak baino gehiago ez hobe hiltzen. Eta horiek libre dira. Baina hara!: alkoolak eta telebistak ez diote gizonari produzitzea eta konsumitzea galarazten, kontrara baizik. Drogak, berriz, sistiman esku-hartzeko gogoa kendu egiten digu, eta kontra ere jar gaitzake. Horregatik nahi gaituzte sendatu, sistimarentzako "irabazteko" kondizioarekin... Oso guti dira guk esaten duguna entzun nahi dutenak. Baztertu egiten gaituzte".

### ERANTZUN AHULA

Gosea kentzeko erabilia izan da droga. Gosea hiltzeko bada, nola liteke gure artera etortzea, munduan geu bakarrik garelarik gosegabeak? Baina gizona ez da ogitik bakarrik bizi... Bistan da beste zerbaite gose dela gazteria. Ez makinak, ez teknikak ez dio holako janaririk eman. Txilardegik esango lukeenez BIZIAK beste zerbaite behar du, nahikunde metafisikoa ez da hila eta ezin da hil ere... Absolutu-egarria ez da mundu honetako iturrietan asetzen.

Hala da. Drogazaletasunak salatzen dituen problemak gure zibilizazioaren oinarri-oinarrikoak dira, nere ustez. Erantzunak ez nau konbenitzen, ordea. Arrazoiz esan ohi da, edozein ukapen ukatu nahi duenaz kutsatzen dela. Drogarekin gauza bera. Konsumoko zibilizazio ustel hau ukatu, desegin, kaskatu nahi omen du. Konturatu gabe, beren ihes-mundu horretan, beren "kontra-kultura" horretan, zibilizazio honen bide eta metodo berekin ari direla.

Zibilizazioa aldatu nahi. Baina nola? Ez al da egia drogazaleek benetako borrokarik ez dutela sortzen? Aspaldi dela jabetu ziren horretaz Estadu Batuetako agintariak, beltzen artean droga-zabalketa begi onez utzi zutenean; ez jakinarena eginaz, noski. Zergatik? Bazekitelako drogak borroka giroa epeltzen duela. Bazekitelako, azkenean, liberatu eta askatu beharrean, kateatu eta esklabutu egiten duela.

Bada halako asaldura bat gurasoen artean. Drogaren uholde honek ez ote ditu, gero, bere semeak suntsituko?

Agintariak erabaki irmoa hartu dute jadanik: drogaren arazo hondagarri eta hondatzaile hau lehenbailehen ezabatzea. Pompidouk bilkura nagusi bat eskatu zuen.

Poliziek lanean dihardute, jo ta ke. Droga-saltzaileak espezialista direnez gero, poliziek ere talde bereziak, hortalen ikasiak, eratu dituzte.

### ZIGORRAREN PREMIA

Zigorren beharra eta premia, uka-ezina da. Frantzia, heriotza eskatzeraino joan dira batzuk: Marcellin, Barneko Ministroa; Defferre, Marseillako alkatea; etc.

Baina nor, nor behar da zigortu? Aho-batez erantzungo dizue denek: heriotz-saltzaileak! Heriotz-saltzaileak, trafikante hori, kontrabandista hori, da, alegia, droga-egilea, ekarlea eta saltzaile. Heriotz-saltzaileak, droga dela medio, komertzio nazionala edo internazionala egiten duen zerri hori da. Hauk behar dira harrapatu.


Baina hain zuzen, auk harrapatzea da zailena. Ikasiak dira, eta indarra, ahala, dutenak. Jauntxo hauk beti libratzen dira; harrapatzekotan ere, bere zerbitzariak kateatuko dituzu. Arazo honek, buruz beteko munstro baten itxura du. Kolpe batez buru bat ebakitzen duzu hemen, eta beste bat agertu zaizu hango puntan derrefente.

Zigorraz ari gara. Droga negozio bezala hartzen dutenekin gogor jokatu behar den neurri berean begirapenez behar da jokatu drogazaleekin. Egia jakina da, bat drogazaleten denean, derrigor "eguneroko ogi" horren beharretan aurkitzen dela. Bada-

kigu ere, droga hori edukitzeko biderik aproposena droga saltzea dela. Kondizionamendu hau gogoan harturik, "droga-saltzaile" txiki honenik ez dago gogor jokatzetik. Ahulena dela ezin ahazt! Drogazaleari, zigorraren arrisku hori kentzeko, methadona legetzea proposatzen dute batzuek, Ameriketara bezala. Methadona hori ez da midizina, ordezko droga bat da, besteak baino bigunagoa. Gaitz erdi litzakeela hori pentsatzen dute batzuek.

### ZIGORRA BAINO LEHEN

Azken argumentua da zigorra. Droga-arazo honetan drogaren negozianteekin soilik erabili behar litzake. Zeren-eta, drogazalea poliziaren eskutian jartzea, minbiziduna gartzelara eramane nahi izatea be-



zalatsu da. Bestalde, pedagogiaren kontra doa zuzenik. Izan ere, drogazaleak badaki poliziak bere osasuna baino areago droga hori nork saldu dion ezagutu nahi lukeela. Baina nola demontre salatuko du, bada, bere sufrimenduaren truke? Nork nahi du, besterik gabe, bere zorion-iturburu agortzea?

Drogazaletasun guztien aintzinean haustura eta eten-nahi bat dago, alegia, esperientzia triste bateatik irten nahia. Berdin da esperientzia hori, gizariek, inguruko, edo familiako izatea. Oroit ehuneko 80 droga gazte, familia giro gaistotuetatik irten direla. Beraz, amildegi horretan erortzea erremediatzeko, gurasoen adiskidetasuna, adiskideen berotasuna, inguruko maitasuna, gizarte osoaren harreara ona... hori dena eta gehiago, askoz gehiago, behar da.

Eta informatzea. Ustekabean hasten direnak ez dira bat edo bi, "Orain dakizunarekin, jakinarekin gaine hasiko ahal zinake berriro drogatzen?" galderrari, telebistan ikusi genituen drogazale hain aho-beteko ezetzaren ondoren, pentsatzen hasteko ordua da. Informatu egin behar da jendea, jakinarekin gainean jarri.

### DROGA-GUDUA HAUZITAN

Droga-trafikariaren kontrako borroka begi onez ikusten ez duenik nekez topatuko da. Egiakoz gizarte demokratiko batetan ez dago atxakiarik. Baina gaurko soziedadetan, indarrarekin kontuz ibili beharra dago, ezin genezake, itsu-itsuan, indarrari konfiantza gehiegi eman. Izan ere, indarra bera, errepretoa bera, droga bilakaturik ikusten dugu bazterretan. Bi droga aurrez aurre: zein kaltegarriago?

Drogaren bila doazela-ta, ez ote dira gero poliziak beste zerbaite atzetik joango? Drogazaleak gizaitez konforme ez daudelata, kolpe batez, konforme ez dauden guztiak harrapatu nahi ez ote?

Estadu Batuetan, jakobide honen (ez arriskuak baizik) gehiegikeriak behin baino gehiagotan salatu dira. Etsiak bedurarazteko eta politika-bide zenbait desegiteko harma aproposa dirudi. Agintariak tentazio horretan ez erortzea harriztekoa litzake.

"Gasteen ehizaz" mintzatu da nobait.

Joan Mari Torrealdy